

Nahia Enparantza Agirre

D maila • 3 saria

Kaixo!! Ni Nahia Enparantza naiz, 12 urte ditut eta DBHko 1. mailan nabil Beasaingo Loinazpen.

Nere zaletasunak futbolean jolastea, dantza egitea eta lagunekin egotea dira.

Idaztea ere asko gustatzen zait eta hau da sari bat irabazten dudan lehen aldia, beraz, asko poztu nintzen saria eman zidatela jakin nuenean. Espero dut zuek ere ondo pasatzea ipuin hau irakurtzen.



HEGOAFRIKAKO ISTORIO BAT

Malim Hegoafrikako tribu batean bizi da bere familia eta lagunekin. Hamaika urte bakarrik izan arren, goizeko seietan jaiki behar izaten du lanera joateko, bere tribuko beste guztiak bezala. Hala ere, zoriontsua da bere adineko neska-mutilak bezala.

Gaur, ordea, ezin izan da lanera joan gaixorik dagoelako. Amak gosaria prestatu eta etxean geratzeko esan dio, beraiek arratsaldeko zortziak aldera iritsiko direla. Bizilagunen semea ere gaixorik dagoenez, etxolan gelditu da. Malim, gosalduek ondoren, bizilagunen etxolara joan da, han itxaroten daukan Kadim-engana.

Biak kartetan jolasten pasatu dute goiz guztia eta bazkaltzeko, Kadimen amak prestatuta utzi dituen bunny chow-ak (kurritz beteriko ogiak) jan dituzte. Arratsaldean futbolean jolasten aritu dira eta konturatzerako arratsaldeko zortziak eta laurden dira. Herrira ez da tribuko inor iritsi. Malim hasieran kezkatu egin da, baina gero pentsatu du agian pixka bat atzeratu egin direla bidean eta futbolean jolasten jarraitu dute. Gaueko hamarretan, ordea, inor agertzen ez dela ikustean, erabat kezkatuta, familikoek bila joatea erabaki dute.

Bakoitzak motxila bana hartu eta bakoitzaren barruan, tribuan dagoen linterna bakarra, bi manta lurrean jartzeko, fruitu batzuk eta putzuko urarekin betetako bi ontzi hartu dituzte.

Gaua beroa da, baina ilargi betea dagoenez, bidea ondo ikusi dezakete. Hiru ordu ibili ondoren, putzu baten ondoan geratu dira lo egiten, manta lurrean jarri eta hantxe geratu dira lotan eguzkiaren argiak esnatu arte. Oraindik ere bide luzea dago lana egiten duten lurretaraino iristeko.

Bidean hainbat triburen etxolak, Hegoafrikako hiririk handienetako bat, Carnarvon, eta pertsona aberatsen etxe eta palazioak pasatu dituzte. Ordu batzuk pasa ondoren, iritsi dira lursail handietara, guztietan dago zerbait landatuta, baina ez da inor lanean ikusten. Malimek pena handia hartu du eta Kadim negarrez hasi da.

Orduan, gizon zahar-zahar bat gerturatu eta esan die:

– Zergatik ari zarete negarrez?

– Gure tribu eta familiartekoak desagertu egin dira eta ez dakigu non dauden.- erantzun dio Kadimek negar batean.

Orduan gizonak non dauden badakiela esan die mutikoei, baina nahiko zaila izango dutela haiek berriro bizirik ikustea. Bi mutikoek, harriturik, ea non dauden galdetu diote. Gizonak, lasaitasun handiz, Afrikako gizon aberatsenaren jauregian daudela atxilotuta kontatu die, “Kikipaka” printzearen altxor sekretua non dagoen esan arte.

Malim berehala gogoratu da, txikitan aitonak kontatutako altxor horri buruzko ipuinaz, baina aitona hil zenetik ahaztuta zeukan. Plan bat behar dute beraien tribukoak askatzeko.

Kadimek ideia bat izan du. Berak gizon aberatsa entretenitzen duen bitartean, Malimek besteak askatuko ditu.

Palaziora iritsi eta Kadimek txirrina jo du, din-don.

Atea ireki dio zerbitzariak:

- Zer nahi duzu?
- Afrikako pailazorik onena naiz eta jauregi honetako jaunarekin hitz egin nahi nuke.
- Oraintxe esango diot.

Kadim gela eder batera eraman dute. Han gizon dotore bat dago eserita. Mutila txistek kontatzen hasi da, pailazokeriak egiten eta gizona barrez lehertzen, ezin gelditu.

Bitartean Malim tribukoak dauden lorategira sartu da, hauek askatzeko asmoz. Aldez aurretik segurtasun zutabe bat eta alarmadun izpi gorriak pasatu ditu. Denak poztu dira mutila han ikustean. Malimek esan die ixilik ibili behar direla eta nagusia ohartu baino lehen, irten behar dutela lorategitik. Kontu handiz eta Malimen argibideak jarraituz, denek pasatu dute hesia.

Bitartean, Kadimek pozik utzi du etxeko jabea eta nahi duenean itzultzeko esan dio diru poltsa ederra ordaindu ondoren. Kadimek ez du horretarako asmorik.

Herrira itzultzean, Kadim eta Malim altxorra aurkitzen saiatu dira, tribuko helduek emaniko argibideak jarraituz eta baita aurkitu ere. Handik aurrera ez dute berriro lursail haietara itzuli beharko eta beraien lurak izango dituzte, beraiek landuak. Hori baita Malim eta Kadimen tribuaren oinarria, guztia guztientzat elkarbanaturik.